

**2002KO ABENDUAREN 19AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIKO AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hemeretzia.

HILABETEA: Abendua.

URTEA: Bi mila eta bira

HASIERAKO ORDUA: Hemeretziak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

LEHENDAKARIA: Jon Jauregi Bereziartua jauna

BILDUAK: Patxi Plazaola Muguruza
Ana Isabel Asla Egialde
Jose Antonio Guirado Tristan
Pello Garaialde Goikoetxea
Josi Insausti Mujika
Jon Berbel Aiestaran
Iñaki Andoni Antxia Etxebarria
Miren Arrate Izagirre Iriondo
Leire Lopez Zurutuza
Jose Luis Elorza Mugica
M^a Carmen Gomez Mediavilla
Pablo Parra Moreno
Julio Herreros Serna Jorge

ETORRI GABEAK: Arantza Aseginolaza Azkargorta
Aimar Larrea Garin
Jorge Juan Outeiral Fernandez

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA: Julen Urteaga Legarra

OHARRA: Itziar Arostegi Apaolaza idazkari andreak bilerara etortzerik izan ez duenez, Julen Urteaga Legarra jaunak egin ditu idazkari lanak.

Udalbatza hasi aurretik, Andoni Antxia (Beasaingo Sozialista Abertzaleak) jaunak hitza hartu du eta eskatu du Udalbatzako bilera arratsaldeko zazpietatik zortzietara bitarte atzeratzea, Batasunak ordu honetarako “duintasun nazionala defendatzeko eta demokraziaren alde” lelopean deitutako mobilizazio eta geldi unetan parte hartzeko.

Hitz egiteko txanda eman ondoren PP eta PSE-EE/PSOeko ordezkariak ez daude ados proposatzen denarekin. Dena dela, Alkate jaunak esan du gai honi buruz erabakia hartzea berari dagokiola eta Udalbatzaren bilera deitutako orduan mantentzen dela.

Horren ondorioz, Andoni Antxiak esan du, berak eta bere taldeak Udalbatza utzi egingo dutela, nahiz eta beraien asmoa Udalbatzan parte hartzea izan, batez ere, Bista Alai arazoari buruzko mozioa tratatu behar delako. Beasaingo Sozialista Abertzaleak mozioa sinatua dutenez, berarekin bat egiten dutela erantsi du.

Esanda bezala, Beasaingo Sozialista Abertzaleko hiru ordezkariak Udalbatza utzi eta aretotik irten egin dira.

1.- AURREKO AKTA. 2002ko azaroaren 28ko aktaren onespena.

2002ko azaroaren 28ko aktaren berri eman ondoren, aldaketa hauek egitea proposatu da:

6. puntuan bozketa egin aurretik, Alkateak esaten du: “...Adibideak baditugu hemen oso hurbil, baina aipatu ezin direnak.”. Horren ordezkariak esan behar du: “...Adibideak baditugu hemen oso hurbil, baina aipatuko ez ditudanak.”

Puntu horretan bertan, bozketa egin aurretik, “Alkateak EAJ/PNV-EAk aurkeztutako aurkako mozioa...”, esaten duen tokian, ordezkariak esan behar du: “Alkateak EAJ/PNV-EAk aurkeztutako mozio alternatiboa...”.

Aldaketa horiekin, aho batez onartu da 2002ko azaroaren 28ko akta.

2.- ARAU SUBSIDIARIOAK

Alkatea jaunak Patxi Plazaola hirigintza batzordeko lehendakariari hitza eman eta honek proposamenaren berri eman du:

“GAIA: Arau Subsidiarioen aldaketa: 4 HA eta 8.S

AURREKARIAK

Udalbatza Osoak 2002ko ekainaren 27ko erabakiaren bidez, behin-behineko onespena eman zion Beasaingo udal Planeamenduko 4 HA eta 8. Srekiko Arau Subsidiarioen aldaketari eta espedientea Gipuzkoako Foru Aldundira bidali zen bahin betiko onespena emateko.

Oain berriz, 4HAko ordenazioa aldatzea proposatzen da. Lanaren berridazketa, Eusko Jaurlaritzako Kultura Departamentuaren Ondarezko Zuzendaritzak emandako aholkuaren ondorioa izan da, hau da: Manufacturas Olan S.A. enpresaren eraikin industrialak zati batean kontsolidatzeko, 4HAko irizpide eta baldintzak egokitu egin behar dira.

Ordenazio berri honekin, higiezinaren zatirik emblematikoa prezerbatu nahi da (razionalista estiloko arkitektura), duen garrantzizko balio arkeologikoagatik.

Horren ondorioz, hirigintza batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. Gipuzkoako Foru Aldundiari 4HArekiko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketa behin betiko onartzea bertan behera uzteko eskatzea.

Bigarren. Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzea, 8.Srekiko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketa izapidetzea, behin betiko onespena eman diezaion.

Hirugarren. 4HAko ordenazio berriari hasierako onespena ematea eta espedientea jendaurrean jartzea hilabeteko epean, iragarkia GAOn eta probintzian gehiena zirkulatzen duen egunkarian, interesatuek alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Laugarren. Bi lehenengo erabakiaren berri Gipuzkoako Foru Aldundiari ematea.”

Patxi Plazaola (EAJ/PNV-EA) jaunak: “Manufacturas Olarekin tratu batera iritsi gara. Etxebizitza kopurua mantendu egiten da ordenazio berriarekin, baina etxebizitza horiek txikiagoak dira. Kultura Sailak esandako mantendu beharreko eraikina eta gehiena balio duena mantentzea erabaki da, nahiz eta oso osoa ez mantendu. Eremu hori sustatu behar duenak bolumen gutxiago du eta horren truke Udalarri dagokion aprobetxamendua ez zaio

kobratzen, baina horren truke egun fabrika den pabiloia Udalari ematen zaio. Babes ofizialeko etxebizitzak lau altuerakoak izan ordez hiru altuerakoak izango dira. Bestalde eremu hori sustatu behar duenak, Udalari lurra eskaintzen dio urbanizatuta eta hor Udalak 20 babes-ofizialeko etxebizitzak eraikiko ditu. Aldi beren, nahiz eta pabiloia mantendu, espaloiak gutxienez hiru metroko zabalera izango du. Horrek kostu gehigarria du eta hori Olaran-ek ordaindu du.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

PPko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu du.

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE) jaunak: “Nosotros vamos apoyar lo que aquí se propone, pero quisiéramos hacer un par de apuntes. Cre que esta es una historia que por lo menos a nivel de proyecto tiene un final feliz, dado que se ha reconsiderado el acuerdo inicialmente tomado. Ha habido una aportación de una serie de personas de este pueblo, en concreto de un grupo de arquitectos. Ya desde el Beasain festivo se planteaba la necesidad de preservar el patrimonio cultural de Olaran y posteriormente lanzaron una propuesta en donde demostraban que mas o menos era factible el mantener el edificio de Manufacturas Olaran, así como el número de viviendas, siendo éstas necesarias para financiar la nuevo pabellón.

Creo que no estaría de más el reconocer las aportaciones desinteresadas de las personas que han hecho un llamamiento para el mantenimiento del mencionado edificio y que ha sido recepcionado de manera positiva desde el Ayuntamiento.

En conjunto la solución adoptada es buena.

Patxi Plazaola (EAJ/PNV-EA) jaunak: “Desde un primer momento hemos tenido reuniones con ese grupo de arquitectos y el día 23 les hemos convocado a una reunión para darles a conocer la nueva ordenación. Lo que nos interesa es que esta nueva ordenación salga bien y se tramite cuanto antes para que los plazos previstos se cumplan.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, aho batez eta horren ondorioz legeak ezartzen quorumarekin onartu da hirigintza batzordeko proposamena.

3.- HGZ. Lurzoru industrial edo hirugarren sektorekoan kokatuta dauden ondasun higiezinei 2003. urtean aplikatuko zaien tipoaren aldaketa.

Alkate jaunak, Jose Antonio Guirado hazienda batzorde buruari hitza eman eta honek proposamenaren berri eman du:

“ASUNTO.- Modificación del tipo que será aplicable en el año 2.003 a los bienes inmuebles situados en suelo industrial o terciario.

La Norma Foral 9/2002 de 25 de noviembre por la que se dictan diversas disposiciones en relación con el Impuesto sobre Bienes Inmuebles en el apartado 2 de su artículo 1 modifica el apartado 3 del artículo 14 de la Norma Foral 12/1989, de 5 de julio, del impuesto sobre Bienes Inmuebles redactándolo de la siguiente manera: *a) En relación con los bienes inmuebles de naturaleza urbana, podrán establecer dos tipos de gravamen incrementado:*

- *Uno, de carácter general, hasta el límite del 4 por 1.000.*
- *Otro, hasta el límite del 6 por 1.000, para los bienes inmuebles situados en suelo industrial o terciario, de acuerdo con las ponencias de valoración correspondientes, excepto para las fincas ubicadas en edificaciones cuyo uso predominante no sea industrial o terciario.”*

Por otro lado, la disposición transitoria primera establece: “En el año 2.003 el límite del 6 por 1.000 previsto en el artículo 14.3.a) de la Norma Foral 12/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, será del 5 por 1.000.

A la vista de ello, la Comisión de Hacienda PROPONE al Ayuntamiento Pleno la adopción del siguiente acuerdo:

Establecer en el 5 por 1.000 el tipo de gravamen a aplicar en el año 2.003 a los bienes inmuebles situados en suelo industrial o terciario, de acuerdo con las ponencias de valoración correspondientes, excepto para las fincas ubicadas en edificaciones cuyo uso predominante no sea industrial o terciario.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez eta legeak ezartzen duen quorumarekin onartu da hazienda batzordeko proposamena.

4.- MOZIOA. Bista Alai kaleko 2, 3, 4, 6 eta 8 zenbakiko eraikinei buruz, EAJ/PNV-EA, Beasaingo Sozialista Abertzaleak, PSE-EE/PSOE eta PPK aurkeztutako mozioa.

Alkate jaunak Jose Enrique Merino Pacheco, Andres Ramos Lopez, Candido Rodriguez Fuertes, Mikel escaño Becerril eta Jose Migel Arteaga

Garcia jaunek eta Beasaingo Udalean ordezkatura dauden udal-taldeak bereganatutako mozioa irakurri du:

“Beasaingo Udalak, aipatutako jabekidegoetako auzotarrek eragindako ondorengo mozioa Osoko Bilkuran tratatzeko izapidetu eta onets dezala.

Urtebete bete da Martina Maiz kaleko 4, 6 eta 8 zk.an kokatutako garaje, behebarru, merkataritza-areto eta etxebizitzadun etxe berria eraikitzeke prozesuaren barruan egindako horma euslea mugitu zenetik. Mugimendu hark, Bista Alai kaleko etxebizitzetan eta hirigintzako ataletan ere kalte garrantzitsuak eragin zituen eta Udalbatzan partaide diren talde politikoek, ondorengo azaldu eta erabaki nahi dute.:

1.- kezka handia dutela, Bista Alai kaleko 2 eta 4 zk.dun etxebizitzetan bizi ziren familiek gaur egun duten noraezoko egoerarengatik, izan ere, beren etxebizitzetatik kanporatuta bizi baitira eta egoera horrek era guztietako kalteak sorrarazten dizkiete.

2.- Beasaingo Udalak konpromiso sendoa hartzen duela, ezbehar hark erasandako auzotar horiek guztiekin batera, sortu diren arazo guztiak behin betiko konpondu arte elkarlanean jarduteko. Konpromiso horrek bere baitan ditu, bai hirigintza-multzo orokarrari egindako kalte guztiak konpontzea eta baita etxeetako bakoitzaren elementu komun nahiz pribatuetan egindakoak konpontzea ere, eta era berean, bakoitzari jasandako egoeretan izan dituen kalte eta galera guztiengatik zor zaizkion kalte-ordainak lortzea ere.

3.- Bai Martina maiz kaleko eraikin berri horretan obrak egiten ari diren enpresei eta teknikariei eta baita hurrenez hurreneko aseguru-erakundeei ere, aipatutako auzotar kaltetuei irtenbide teknikoak nahiz ekonomikoak berehala aurkez diezazkietela eskatzea, beren eskubideen arabera itzuli beharrekoak osotasunean itzul diezazkieten.

4.- Bista Alai kaleko 2 zk.dun etxe-eraikinaren administrazioko aurri-espeditatea hastea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek ondorengo iritziak azaldu dituzte:

PPko ordezkaria: “Estamos de acuerdo y manifestamos nuestro apoyo total.”

PSE-EE/PSOeko ordezkariak: “Creo que en lo que llevamos de legislatura es el episodio más grave que hemos tenido.y en ese sentido hemos estado con el Alcalde apoyando todas las gestiones que desde aquí se han podido hacer. Desde el Ayuntamiento seguiremos impulsando todas las actuaciones que conlleven a la resolución del problema.”

Alkate jaunak: “En honor a la verdad y al agradecimiento de todos los partidos políticos que aquí están presentes quiero recordar que no es la primera vez que se trata este tema en este Pleno, y mucho menos en el Ayuntamiento. Que todo lo hecho hasta ahora ha sido informado y comunicado y compartido con todos los partidos políticos representados en el Ayuntamiento de Beasain, que lo que hoy formalmente se recoge y consagra en una moción viene a recoger el espíritu y el compromiso que hasta ahora por lo menos hemos mantenido pública y privadamente en las diversas reuniones que los partidos políticos hemos celebrado en el Ayuntamiento.

La situación de incertidumbre provoca una situación de desesperanza que con palabras no se puede resolver, pero el hecho de que hoy todos los partidos políticos hayamos suscrito esta moción viene a reforzar lo que hasta ahora hemos venido diciendo y lo que en adelante seguiremos haciendo.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da mozioa.

Eskaera eta galderen aurretik, Alkatea jaunak premiazko puntu bat sartzea proposatu du, hain zuzen ere, EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE eta PPK sinatutako, Madrilen gertatutako guardia zibilaren hilketa salatzeke ondorengo mozioa:

“ETAk, iragan abenduaren 17an Madrilen egindako guardia zibilaren hilketaren aurrean, EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE eta PP udal-taldeek MOZIO hau aurkezten du Osoko bilkuran onar dezan:

1.- Gure gaitzespenik sendoena adierazi pertsona bat hil eta bi zauritu eragin dituzten ekintza horien aurrean. Izan ere, ETAk gure gizartea murgilarazi nahi duen espiral terroristaren zentzugabekeriaren lekuko baitira ekintza bortitz horiek

2.- Gure doluminik sentituena eta elkartasuna adierazi biktima horien senitartekoei.

3.- ETAREN biolentzia salatzea.

4.- Beasaingo herritar guztiei dei egitea horrelako ekintzekiko gaitzespena argi eta garbi adieraz dezaten, horretarako antola daitezkeen kontzentrazio guztietan parte hartuz.”

Bozketa egin da aipatutako mozioa premiazko puntutzat tratatzeari buruz eta aho batez onartu da.

Mozioari buruz, hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

PPko ordezkariak mozioarekiko adostasuna azaldu du.

PSE-EE/PSOeko ordezkaria: “Creo que la moción expresa con suficiente claridad la situación. De acuerdo.”

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da mozioa.

5.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

BISTA ALAI, 2ko ERAIKINAREN AURRI DEKLARAZIOA

Bista Alai, 2ko bizilagun kaltetu batek galdetu du ia Bista Alai, 2ko eraikina aurrian deklaratu behar den. Alde aurretik eskerrak ematen die talde politikoetako ordezkari guztiei egin duten guztiagatik.

Alkatea jaunak: “Nosotros hoy hemos adoptado el acuerdo de iniciar el expediente administrativo de declaración de ruina del edificio nº 2. Es un trámite largo, porque la Ley articula una serie de plazos y requisitos en garantía de derechos de terceras partes.

Eta tratatzeko beste gairik ezean, bilera gaueko zortziak hamar gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.